PNEUMATIKA - 1

LOGIKA PNEUMATIKOA

ARIKETA - LIBURUA

Egilea: ALECOOP S. Coop.

Itzultzailea: ELHUYAR TALDEKO LUIS M. BANDRES

udako euskal unibertsitatea



Aurrerki Kutxa Munizipalak

Babestutako argitarapena

Edición patrocinada por la

Caja de Ahorros Municipal
de San Sebastian

U D A K O E U S K A L U N I B E R T S I T A T E A

IRUÑEA 1.982

P N E U M A T I K A - 1

LOGIKA PNEUMATIKOA

ARIKETA-LIBURUA

EGILEA: ALECOOP S.COOP.

ITZULTZAILEA: ELHUYAR TALDEKO LUIS M. BANDRES

LOGIKA PNEUMATIKORAKO EKIPOAREN LIBURUA

HASTAPEN-ARIKETAK. Funtzio logikoak.

	orr.
1.- BAI funtzioa.	10
2.- Pultsadorez eragindako N.C. balbula baten bidezko BAI funtzioa.	11
3.- Pultsadorez eragindako N.A. balbula baten bidezko EZ funtzioa	11
4.- Bi sarrerako EDO funtzio logikoa.	12
5.- ETA funtzioa.	14
6.- Bi sarrerako ETA funtzio pneumatikoa.	15
7.- Inhibizio funtzioa.	16
8.- Inhibizio-balbula baten bidez EZ funtzioa	17
9.- NOR funtzioa.	18
10.- NAND funtzioa	19
11.- EDO funtzio bat NAND zirkuituaren bidez	21
12.- ETA funtzio bat NOR zirkuituaren bidez.	22
13.- ALA funtzioa ("exclusivor")	23
14.- Bihurgailu Pneumatiko/Elektrikoa.	--
15.- Efektu bikoitzeko zilindro baten funtzionamendua banatzaile batez.	25
16.- Bi bidetako balbularen bidezko efektu bakuneko zilindroa	27
17.- Lau bidetako balbularen bidezko efektu bikoitzeko zilindroa.	28

ARIKETAK ERRAZETIK ZAILERA.

18.- $A = P_1 . I_1 + \overline{P}_0$ funtzioa eraiki.	29
19.- Prentsa baten elikadura	30
20.- Prentsa baten segurtasun-mekanismoa	31

PROBLEMA TEORIKOAK.

	Orr.
21.- Ekuazioen sinplifikazioa- Bide matematikoa. . .	34
22.- Egi taula - Karnaugh-en diagrama	35
23.- Karnaugh-en taulen bidezko funtzioen sinplifikazioa	39
24.- Garrantzi handiko sinplifikazioak.	42
25.- Logigramen sinplifikazioa.	43
26.- Alderantzizko funtzioa.Axolarik gabeko baldintzak	45

LOGIKA KONBINATORIOA.

27.- I_1 eta P_1 aldagaien bidezko ALA funtzioa . . .	47
28.- Margotzeko mekanismoa automatikoa.	49
29.- Jasogailuaren automatizazioa	51
30.- Prentsarako xafla-elikagailua.	53
31.- Ontziratze automatikorako mekanismoa	61
32.- Errematxatzeko makina automatikoa.	67
33.- Piezen garraioa.	70

LOGIKA SEKUENTZIALA.

34.- Bi balbularen bidez gidatutako zilindro baten higidura	77
35.- Mekanizaziorako mekanismoa zulatzeko makinaz . .	81
36.- Zilindro baten kontrola balbula batez.	87
37.- Errematxatzeko makina automatikoa.	90
38.- Zulatzeko makina automatikoa. Bi piezaren mekanizazioa mahai higikorrean	93

KARNAUGH-EN SISTEMA LABURRA.

	Orr.
39.- 35.ariketaren ebazpena.	100
40.- Atzeraurrerako higidura duen zilindroa.	103
41.- A+,B+,B-,A-,C+,C-,A+... prozesu automatikoa. . .	105
42.- B+,C-,A+,C+,B-,C-,A-,C+,B+... prozesu automatikoa	110
43.- B-,(A+C+),B+,C-,B-,(C+A-),B+,C-,B... prozesu automatikoa	113
44.- Erremintaren itzulera duen zulatzeko makina . . .	118

IBILBITARTE-MUGETAN EZARRITAKO ALDAGAIEN ERABILPENA.

45.- Tornu automatikoarentzako barra-elikagailua . . .	123
46.- Tolba edo kalapatxa baten materiala dosifikatzeko automatismoa	127
47.- Kortxoa sartzeko makina	131
48.- Botilatzeko mekanismoa.	136
49.- Kolpe bikoitzeko puntzonatzeko makina	140
50.- Atzeraurrerako zerra automatikoa.	145
51.- Hurbiltze-abiadura eta mekanizazio-abiadura bereizten duen zulatzeko makina automatikoa.. . . .	152

BOOLE-REN ALGEBRA ETA BERE ERABILPENA AUTOMATISMOEN IKERKETAN

Booleren algebra matematikoaren adar berezi bat da eta bere izaera dela eta,bere erabilpena automatismo logikozko problemak ebaztera zuzendua izan da,bereziki.George Boole(1815-1864)matematikari ingelesak teoria honen oinarriak ezarri ondoren,teoria bera garatu zuen.

1.938.urtean Claude Shaunen deitutako zientzialari ospetsua algebra-mota honen ezaugarri bereziez ohartu zen eta kontaktu anitzeko sareen ikerketarako egokitu zuen.Erabilpen errealetarako hain ederki egokitzen zen teoria,etengabe garatuz joan da.Garapena dela eta,teoria hau gaur egun kalkulagailu elektronikoen oinarri da.

Teoria guzti honen funtsa kodigo bitarra da,eta beraz,bi egoera egonkor(irekita eta itxita)soilik dituen edozein zirkuitu konmutagarri ikertzeko baliagarria da.

Horregatik,Booleren algebra edo konmutazio-algebra teknologia industrial desberdinen adar asko eta askotan erabili da:elektrika,elektronika,fluidika,hidraulika,pneumatika,e.a.

Aurkezten dugun aparatua,tekniko ez-espezialistei algebra logikoaren sarrera bat emateko eta automatismo pneumatikoaren eremua aztertzeko diseinatua dago.Hasieran,gaiak zeharo teorikoak dira, baina berarekin batera ariketa xehe batzuk doaz.Hauen bidez ezaguera sendoagotzen da eta ikaslea aparatuaren erabilpenean trebatu egiten da.

Aurrera joan hala agertzen eta egiten diren ariketek,alderdi praktikoagoa hartzen dute,eta amaiera aldeko guztiak problema guztiz industrialak dira.Beraz,aparatu honek bi helburu ditu:

Didaktikoa:ikasleari algebra pneumatikoa erakutsi egiten dio

Industriala:aldez aurretik experimentazio bat edo egokitze bat behar duten prozesu industrialak praktikara eraman

aurretik aparatuan azter daitezke.Beraz,prozesu automatikoen simulagailu bat da.

Problemak ebazteko bide desberdinak daude,horietako bakoitzak bere abantaila bereziak dituela.Ariketa-liburu honetan bide desberdin horiek urratzen dira.

Gehienetan eta errealitatean ez dago automatismo industrialik teknologia pneumatiko hutsaren bidez egiterik.Egunetik egunera instalazioen konplexutasuna handituz doa.Problema bakoitzarentzat ebazpen egokiren bat dago.Hau,teknologia elektriko,elektroniko edo pneumatikoaren bidez egin daiteke.Hori dela eta,gure ELECTROLOG logika elektrikako ekipoak,LOGITRONIC 3 logika elektronikoko ekipoak eta NEUMATIKA logika pneumatikoko ekipoak edozein problema,nahiz zaila izan,ebaz dezakete.

OHARRAK:

Algebra logikoaz arduratzen den NEUMATIKA 1 ariketa-liburu hau aurrera eraman ahal izateko,oinarrizko sinbologia pneumatikoa (CETOP normak) ezagutzea aski da.

Ezaguera hori eta oinarrizko erizpideak ematen dituen teknologia,NEUMATIKA 1 esku-liburuaren bidez har daitezke.

Bi liburu hauetan pneumatikaren ohizko tratamenduaren eta algebra logikoaren bidezkoarenaren arteko diferentzia ikus daiteke.Abanatailak,azkeneko bide honen alde daude.

ERIZPIDEAK:

- Bi bideko balbula pneumatiko bat,N.A. nahiz N.C. izan,pausagune-egoeran dagoenean 0 egoeran dagoela kontsideratzen da.Eragiten diogunean 1 egoerara pasatzen da.

- Bi posizio egonkorreko balbula bat(eraginbide bikoitz pneumatikoarekin 4 bide)edozein posiziotan 1 edo 0 egoeran kontsidera daiteke,bestea bere osagarria izanik;0 edo 1 hurrenez hurren.

- Efektu bakun edo bikoitzeko zilindro bat bere pistoia sartuta

edo sartze-higiduran dagoenean 0 egoeran dago.Aldiz,guztiz ateratata edo ateratze-higiduran dagoenean 1 egoeran egongo da.

HASTAPEN-ARIKETAK: FUNTZIO LOGIKOAK

1.ARIKETA


"BAI" FUNTZIOA

Funtzio hau zera da:bi egoera 0 ala 1 izan dezakeen funtzioa. Bere balioa,duen aldagai independiente batez gidatuta dago.

Bitez, I_1 balbula aldagai independientea eta efektu bakuneko C zilindroa funtzioa.

Adierazpen matematikoa hauxe da: $C = I_1$

Adierazpen logikoa eta dagokion eskema 1.1.irudian agertzen dira.



1.1.- Irudia

ZIRKUITUAREN FUNTZIONAMENDUA

1.- 1.1.irudian agertzen den eskema eraiki

Pausagune-egoeran $I_1 = 0$,C zilindroa sartuta dago, $C = 0$


2.- Balbulari eragin, $I_1 = 1$

Zilindroa aurrera doa eta aterata geratzen da, $C = 1$

2.ARIKETA

PULTSADOREZ ERAGINDAKO N.C. BALBULA BATEN BIDEZKO "BAI" FUNTZIOA

Eskema 2.1.irudian agertzen da.



2.1.Irudia

ZIRKUITUAREN FUNTZIONAMENDUA


1.- Pultsadoreari eragin gabe dagoenean, $P_1 = 0$, zilindroa sartuta dago, $C = 0$

2.- Pultsadoreari eragiterakoan, $P_1 = 1$, zilindroa aurrera doa, $C = 1$

3.ARIKETA

PULTSADOREZ ERAGINDAKO N.A. BALBULA BATEN BIDEZKO "EZ" FUNTZIOA

3.1.irudian dagokion eskema eta bere adierazpen logikoa ematen dira.



3.1.Irudia

ZIRKUITUAREN FUNTZIONAMENDUA

1.- Pultsadoreari eragin gabe dagoenean, $P_o = 0$, C zilindroa aterata dago, C = 1.

2.- Pultsadoreari eragiterakoan, $P_o = 1$, C zilindroa atzerantz doa, C = 0.

OHAR GARRANTZITSUA:

P_o BALBULAK EGITEN DUEN FUNTZIO PNEUMATIKOA UKAZIO BAT DA. ESKEMA GUZTIETAN $\overline{P}_o$ IKURRAREN BIDEZ ADIERAZIKO DUGU.


4.ARIKETA

BI SARRERAKO "EDO" FUNTZIO LOGIKOA.

Hemen C funtzioa I_1 eta P_1 bi sarreren menpean dago. Hauek, al dagai independienteak dira. C funtzioa 1 izateko, I_1 "EDO" P_1 1 izatearekin aski da.


Adierazpen matematikoa $C = I_1 + P_1$ da.

Adierazpen logikoa 4.1. irudian agertzen da.



4.1.Irudia

Dagokion eskema 4.2.irudian ematen da.



4.2.Irudia

ZIRKUITUAREN FUNTZIONAMENDUA.

1.- I_1 eta P_1 balbulei eragin gabe egon.
C zilindroa sartuta dago.

$$C = 0 + 0 = 0$$

2.- I_1 edo P_1 balbuletako edozeini eragin.
C zilindroa atera egiten da.

$$C = 1 + 0 = 1$$

GALDERA:

1) Zer gertatuko litzateke balbulen bi irteerak inongo EDO zelula erabili gabe, batzen baditugu?

5.ARIKETA

"ETA" FUNTZIOA.

Hemen ere funtzioa (C zilindroa) I_1 eta P_1 bi aldagaien funtzio tan dago.


C = 1 izan dadin lortzeko I_1 "ETA" P_1 balbulei biei eragin behar diegu

$$I_1 = P_1 = 1$$

Booleren algebran ETA eragiketa honela egiten da:

$$1 \cdot 1 = 1$$
$$1 \cdot 0 = 0$$
$$0 \cdot 1 = 0$$
$$0 \cdot 0 = 0$$

ESKEMA:



5.1.Irudia

1.- Balbulak pausagune-egoeran ipini

$$I_1 = P_1 = 0$$

Zilindroa sartuta dago.

$$C = 0 \cdot 0 = 0$$

2.- Balbulei bata bestearen ondoren eragin.

Zilindroa atera egingo da


$I_1 = P_1 = 1$ denean

$C = 1 \cdot 1 = 1$

6.ARIKETA


BI SARRERAKO "ETA" FUNTZIO PNEUMATIKOA.

Adierazpen logikoa 6.1.irudian ematen da.



6.1.Irudia

ESKEMA:



6.2.Irudia

1.- $I_1 = P_1 = 0$ pausagune-egoeran ipini.

$C = I_1 \cdot P_1 = 0 \cdot 0 = 0$

Zilindroa sartuta dago.

2.- Balbula bati eragin: $I_1 = 1$, $P_1 = 0$

$$C = 1 \cdot 0 = 0$$

Zilindroak sartuta irauten du.

3.- Bi bailbulak ireki: $I_1 = P_1 = 1$


$$C = 1 \cdot 1 = 1$$

Zilindroa aurrerantz doa.


7.ARIKETA

INHIBIZIO FUNTZIOA.

7.1.irudian agertzen den bezalako EZ funtzio baten eta ETA funtzio baten arteko batuketa bezala kontsideratzen da. 7.2. irudia bestearen sinplifikazio bat baino ez da.



7.1.Irudia



7.2.Irudia

Dagokion ekuazio matematikoa $C = I_1 . \overline{P}_1$ da.

$I_1 = 1$ eta $P_1 = 0$ direnean zilindroa aterata dago (1 egoera)

$$C = I_1 \cdot \overline{P}_1 = 1 \cdot 1 = 1$$

Beraz, sarrera ukatuak ukatu gabe dagoen sarreraren ekintza deuseztatzen du. Hortik datorkio inhibizio izena.

ZIRKUITUAREN FUNTZIONAMENDUA:


1.- 7.3.irudiko zirkuitua eraiki.

2.- Egin I_1 = 1 eta P_1 = 1; Emaitza C = 0

3.- Egin I_1 = 1 eta P_1 = 0; Emaitza C = 1

4.- Egin I_1 = 0 eta P_1 = 1; Emaitza C = 0

5.- Egin I_1 = 0 eta P_1 = 0; Emaitza C = 0




7.3.Irudia

8.ARIKETA

INHIBIZIO-BALBULA BATEN BIDEZ "EZ" FUNTZIOA.

ESKEMA:



8.1.Irudia

1.- I_1 balbula pausagune-egoeran jarri: $I_1 = 0$

Zilindroak aterata irauten du.

2.- I_1 balbulari eragin: $I_1 = 1$

Zilindroa atzerantz doa $C = \overline{I}_1 = \overline{I} = 0$

9.ARIKETA

"NOR" FUNTZIOA.

EDO funtzioaren ukazioa da.

Adierazpen logikoa 9.1.irudian ematen da.



9.1.Irudia


Lerro bertikalak ukazioa adierazten du.

Funtzio matematikoa zera da:

$$C = \overline{I_1 + P_1}$$

Orain arte mota honetako balbularik ez dago. Hala ere, inhibizio-balbulen bidez lor dezakegu.

ESKEMA:



9.2.Irudia

1.- I_1 eta P_1 balbulei eraginda eutsi.

Zilindroa sartuta dago.

$$C = \overline{1 + 1} = \overline{1} = 0$$

2.- Bi balbulak bata bestearen ondoren pausagune-egoerara eraman.

Zilindroa atera egingo da $I_1 = 0$ eta $P_1 = 0$ direnean.

$$C = \overline{0 + 0} = \overline{0} = 1$$

10.ARIKETA

"NAND"FUNTZIOA.

ETA funtzioaren ukazioa da.

Bere adierazpen logikoa 10.1.irudian ematen da.




10.1.Irudia


Oraingoz mota honetako balbula pneumatikorik ez dago.

Inhibizio-balbulen bidez eraiki daiteke.

ESKEMA:



10.2. Irudia



10.3. Irudia

1.- Balbulak pausagune-egoeran jarri.

$$I_1 = P_1 = 0$$

Zilindroa aurrera doa: $C = \overline{0 \cdot 0} = \overline{0} = 1$

2.- Balbulak bata bestearen ondoren 1 egoerara eraman.

Zilindroa atzerantz joango da.

$$I_1 = P_1 = 1 \qquad \text{denean}$$

orduan: $C = \overline{1 \cdot 1} = \overline{1} = 0$


11.ARIKETA

"EDO" FUNTZIOA "NAND" ZIRKUITUEN BIDEZ.

Morgan-en teoremak zera dio:


$$A + B + C + D = \overline{\overline{A} \cdot \overline{B} \cdot \overline{C} \cdot \overline{D}}$$

Beraz, sarrerak ukatuta dauzkan NAND funtzioa, EDO funtzioa bezalakoa da (ikus 11.1.irudia)



11.1.Irudia

ESKEMA:



11.2.Irudia

$$X = \overline{I}_1$$

$$Y = \overline{P}_1$$

$$Z = X.Y = \overline{I}_1.\overline{P}_1$$

$$C = \overline{Z} = \overline{\overline{I}_1.\overline{P}_1} = I_1+P_1$$

1.- I_1 eta P_1 eraginda eduki. Zilindroa aterata dago.

2.- I_1 eta P_1 bata bestearen ondoren pausagune-egoerara eraman Zilindroa $I_1 = P_1 = 0$ denean, atzerantz joango da

$$C = I_1 + P_1 = 0 + 0 = 0$$

12. ARIKETA

"ETA" FUNTZIOA "NOR" ZIRKUITUEN BIDEZ.

Morgan-en teoremak zera dio:


$$A \cdot B \cdot C \cdot D = \overline{\overline{A} + \overline{B} + \overline{C} + \overline{D}}$$

Beraz, ETA funtzioa eta sarrerak ukatuta dauzkan beste NOR funtzio bat, baliokideak dira (ikus 12.1.irudia)



12.1.Irudia

ESKEMA:



12.2.Irudia

$$X = \overline{I}_1$$

$$Y = \overline{P}_1$$

$$Z = X + Y = \overline{I}_1 + \overline{P}_1$$

$$C = \overline{Z} = \overline{\overline{I}_1 + \overline{P}_1} = I_1 \cdot P_1$$

1.- I_1 eta P_1 pausagune-egoeran eduki: $I_1 = P_1 = 0$
Zilindroak sartuta irauten du.

2.- I_1 eta P_1 balbulei bata bestearen ondoren eragin.
C zilindroa aurrerantz doa $I_1 = P_1 = 1$ direnean.

$$C = I_1 \cdot P_1 = 1 \cdot 1 = 1$$

13.APIKETA


ALA FUNTZIOA ("EXCLUSIVOR")

ALA funtzioa $\oplus$ ikurraren bidez ere adierazten da.

Dagokion ekuazio matematikoa, hauxe da:

$$S = I_1 \cdot \overline{P}_1 + \overline{I}_1 \cdot P_1$$

13.1.irūdian NAND zirkuituen bidez egindako bere eskemarik sinpleena ematen da eta dagokion eskema logikoa ere bai.



13.1.Irudia

$$X = \overline{\overline{I}_1 . P_1} = \overline{I}_1 + \overline{P}_1$$


$$Y = \overline{\overline{I}_1 . X} = \overline{I_1 . (\overline{I}_1 + \overline{P}_1)}$$

$$Z = \overline{\overline{P}_1 . X} = \overline{P_1 . (\overline{I}_1 + \overline{P}_1)}$$

$$S = \overline{\overline{Y} . \overline{Z}} = \overline{Y} + \overline{Z} = I_1 . (\overline{I}_1 + \overline{P}_1) + P_1 (\overline{I}_1 + \overline{P}_1) =$$

$$= I_1 . \overline{I}_1 + I_1 . \overline{P}_1 + P_1 . \overline{I}_1 + P_1 . \overline{P}_1 = I_1 . \overline{P}_1 + P_1 . \overline{I}_1$$

ESKEMA:



13.2.Irudia

1.- 13.2.irudiko eskema eraiki.


2.- I_1 eta P_1 balbulak posizio berdinetan daudenean, zilindroa atzerantz doa.

3.- I_1 eta P_1 balbulak posizio desberdinetan daudenean, zilindroa aurrerantz doa.

15.ARIKETA

EFEKTU BIKOITZEKO ZILINDRO BATEN FUNTZIONAMENDUA LAU BIDETAKO ETA AGINTE PNEUMATIKO BIKOIZTUN BI POSIZIOTAKO BANATZAILE BATEZ.

Mota honetako banatzaile baten ohizko eskema 15.1.irudian agertzen da.



15.1.Irudia

Guztiz egonkorrak diren 1 eta 2 bi posizio dauzka.Hasieran balbula 1 posizioan dagoela suposatzen da. Banatzailearen Z sarreraki aski indar duen bulkada pneumatiko bat eragindakoan, 2 posiziora pasatzen da.

Bulkada desagertzean, balbulak posizio horretan irauten du.

Erabilpenerako bi buru daude:

A - sarera konektatuta geratzen dena.

B - ihesbidera konektatuta geratzen dena.

Y-ri beste bulkada berri bat eragindakoan banatzailea 1 egoera ra doa

A - ihesbidera konektatuta

B - sarera konektatuta.

Y eta Z bi aginteetan presioa ez da batera konektatu behar.

Mekanismo industrial batetan zilindroek (indar-zirkuitua) behar duten aire-kaudala bere tamainaren eta lan-abiaduraren funtzio tan dago.


Gehienetan kontrol-zirkuituak behar duena baino askoz handiagoa da eta beraz, tutuek diametro handiagokoak izan behar dute.

Lan-bidetako banatzailea anplifikagailu bat da eta zirkuitu batetik bestera agintea bihurtzen du. Kontsumo handiko zirkuitue tan oso beharrezkoa da.

NEUMATIKA 2 ekipoan aginte-balbulen kaudala zilindroei eragite ko aski da. Hala ere, eta errealitate industrialean egiten denetik hurbilago egoteagatik, lau bidetako banatzaileak erabiltzen dira beti.

ESKEMA:

A_1 eta A_0 banatzailearen aginteak hartzerakoan eta bere 1 eta 0 egoeren posizioekin ados jartzeko, banatzailearen ikurraren posizioa eta zilindroaren aurreratze-norantza kontutan hartu behar ditugu:




15.2. Irudia

I_1-i eragiterakoan, zilindroa aurrerantz doa.

P_1-i eragiterakoan, zilindroa atzerantz doa.

$I_1 = A_1$

$P_1 = A_0$



15.3.Irudia

I_1-i eragiterakoan, zilindroa atzerantz doa.

P_1-i eragiterakoan, zilindroa aurrerantz doa.

$I_1 = A_0$

$P_1 = A_1$


16.ARIKETA

BI BIDETAKO BALBULAREN BIDEZKO EFEKTU BAKUNEKO ZILINDROA.AGINTE BAKUNA.

Aurrerago etorriko diren ariketa batzuetan ikusiko den bezala, batzutan zirkuitu pneumatikoetako kalkuluak egiterakoan zilindroak elikatzeko aginte bakuneko edo bikoitzeko balbulak dauzkagula suposatzen da.

Aginte bakuneko balbulen bidezko oinarrizko zirkuitua 16.1.irudian ematen da.

ESKEMA:



16.1.Irudia

1.- P_1-i eragin eta C zilindroa aurrera doa.

2.- P_1-i uzterakoan C zilindroa atzerantz doa.

Zilindroaren 1 posizioari iraun erazteko P_1 agintea eragin da eduki behar dugu.


17.ARIKETA

LAU BIDETAKO BALBULAREN BIDEZKO EFEKTU BIKOITZEKO ZILINDROA.

BALBULAK BI POSIZIO DITU, AGINTE PNEUMATIKOA ETA ITZULERA MALGUKIZ.

A zilindroa 1 egoeran edukitzeko A-n seinalea eduki behar dugu beti.

ESKEMA:



17.1.Irudia

1.- P_1-i eragiterakoan A zilindroa aurrerantz doa.

2.- P_1-i uzterakoan A zilindroa atzerantz doa.


ARIKETAK ERRAZETIK ZAILERA

18.ARIKETA

$A = P_1 . I_1 + \overline{P}_0$ FUNTZIOA ERAIKI.


A zilindroaren posizioa funtziotzat hartzen da.

Logigrama:



18.1.Irudia

ESKEMA:



18.2.Irudia

1.- P_1 eta I_1-i batera eragiterakoan A zilindroa aurrerantz doa. Horietako bati utzitakoan atzerantz joango da.

2.- P_0-i eragiterakoan A zilindroa atzerantz doa.

19.ARIKETA

PRENTSA BATEN ELIKADURA

Prentsa hau langile batek edo irakasle batek kontrola dezake.

Kasu hauetan egingo du lan:


1.- P_1-i eragiteko pieza bat jarrita eta langileak P_0-ri eragiten dionean.

2.- Nahiz pieza jarrita egon ez, irakasleak I_1-i eragiten dionean. Kasu honetan, nahi eta ez P_0-k eragin gabe egon behar du.

Beraz, ekuazio logikoa hauxe da:


$$C = P_0 \, P_1 + \overline{P}_0 \, I_1$$

Logigrama, 19.1.irudian dago.



19.1.Irudia

ESKEMA:



19.2.Irudia

Maniobra langileak egin duenean L_1 lanpara pizten da. Aldiz, irakaslea izan denean, pizten dena L_2 lanpara da.

1.- Suposa dezagun prentsa elikatuta dagoela (P_1 eragina) eta langileak P_0-ri eragiten diola.

Zilindroa aurrerantz doa; prentsa lan egiten ari da.

2.- P_1-i uzterakoan, zilindroa atzerantz doa.

3.- Langileak P_0-ri eragiten ez dionean, irakasleak I_1-i eragiten badio, prentsak lan egingo du.

20.ARIKETA

PRENTSA BATEN SEGURTASUN-MEKANISMOA.


Prentsa baten segurtasun-mekanismo bat eraiki nahiean, kontrol-zirkuituak lan egin dezan P_1 eta P_0-ri batera eta bi eskuez eragin behar zaie.

Irakasleak I_1-en bidez eragin diezaioke prentsari.

Prentsaren higidura honi dagokion ekuazioa, hauxe da:


$$C = P_1 \cdot \overline{P}_0 + I_1$$

Logigrama 20.1.irudian agertzen da:



20.1.Irudia

ESKEMA:



20.2.Irudia

Prentsak langile nahiz irakaslearen eraginagatik lan egiten duela egiazta ezazu.

BOOLE-REN ALGEBRAREN ERAGIKETA-BIDEAK.

Booleren algebraren legeak eta ohizko matematikarenak, zeharo desberdinak dira. Beheraxeago agertzen den 1.Taula horretan lege horietako garrantzitsuenak eta beren zenbakizko demostrazioak ematen dira.

$1 . 0 = 0$

$1 . 1 = 1$

$1 + 1 = 1$

$1 + 0 = 1$

1.TAULA

$A + 0 = A$	A 0 | A+0 1 0 | 1 0 0 | 0
$A + A = A$	A +A | A+A 1 1 | 1 0 0 | 0
$A + \overline{A} = 1$	A A | A+A 1 0 | 1 0 1 | 0
$A . 0 = 0$	A 0 | A.0 1 0 | 0 0 0 | 0
$A . 1 = A$	A 1 | A.1 0 1 | 0 1 1 | 1
$A . A = A$	A A | A.A 1 1 | 1 0 0 | 0
$A . \overline{A} = 0$	A $\overline{A}$ | A.$\overline{A}$ 1 0 | 0 0 1 | 0

21.ARIKETA

EKUAZIOEN SINPLIFIKAZIOA:BIDE MATEMATIKOA.

Booleren algebraren oinarrizko legeak (ikus 1.taula) erabiliz ondoko ekuazioen sinplifikazioak egin:

1.- $E = \overline{A\overline{C}} + AB + A\overline{B}C + A\overline{C}$

1.legea: $A\overline{C} = A\overline{C} + A\overline{C}$ emandako ekuaziora eramanez

$$F = \overline{A\overline{C}} + AB + A\overline{B}C + (A\overline{C} + A\overline{C}) =$$

$$= (\overline{A\overline{C}} + A\overline{C}) + (AB + A\overline{B}C + A\overline{C})$$

Lehenengo batugaia, sinplifika daiteke:

$$\overline{A\overline{C}} + A\overline{C} = \overline{C}\ (A + \overline{A}) = \overline{C}$$

Bigarren batugaia, sinplifika daiteke:

$$AB + A\overline{B}C + A\overline{C} = A(B + \overline{C}) + A\overline{B}C = A(B + \overline{C} + \overline{B}C)$$

Morganen legearen arabera: $B + \overline{C} = \overline{\overline{B} \cdot C}$

$$A(\overline{\overline{B} \cdot C} + \overline{B} \cdot C) = A$$

Beraz,

$$F = A + \overline{C}$$

2.- $F = x + xy = x(y+1) = x$

3.- $xy + \overline{y}z + yz = xy + z(\overline{y}+y) = xy + z$

4.- $x + \overline{x}y$

Ondoko aldaketa egin daiteke:

$$x + xy = x(1+y) = x$$

$$x + xy + \bar{x}y = x + y(x+\bar{x}) = x + y$$

5.- $F = xy + \bar{x}z + yz$

Aldaketa hauek egin

$$xy = xyz + xy\bar{z}$$

$$z\bar{x} = z\bar{x}y + z\bar{x}\bar{y}$$

$$yz = yzx + yz\bar{x}$$

Ekuaziora eramanez:

$$F = xyz + xy\bar{z} + z\bar{x}y + z\bar{x}\bar{y} + yzx + yz\bar{x} =$$

$$= (xyz + xyz) + (z\bar{x}y + z\bar{x}y) + xy\bar{z} + z\bar{x}\bar{y} =$$

$$= xyz + z\bar{x}y + xy\bar{z} + z\bar{x}\bar{y} =$$


$$= xy(z+\bar{z}) + z\bar{x}(y+\bar{y}) = xy + z\bar{x}$$

22. ARIKETA

EGI TAULA. KARNAUGH-EN DIAGRAMA.

a) Ekuazio batetan posible diren egoera guztiak konbinazio-taula baten bidez adieraz daitezke.

Lehenengo adibidea: egin dezagun EDO funtzio baten egi taula



a	b	S
0	0	0
0	1	1
1	1	1
1	0	1

22.1.Irudia

Bi aldagaiko funtzio batetan,lau egoera egon daitezke.Egoera--kopurua,ondoko ekuazio honek ematen digu:


$$\text{Egoera-kopurua} = 2^{x} \quad ; \quad x = \text{aldagai-kopurua izanik}$$

Taularen ulerpena errazteko,aldagai bakoitza marra baten bidez adierazten dugu(ikus 22.1.irudia)

- Marra dagoenean,aldagaiaren balioa 1 da
- Marrarik ez dagoenean aldagaiaren balioa 0 da

Egi taula era errazago batez emateko,Karnaugh-en diagrama erabil daiteke.

S = a + b ekuazioaren adierazpena 22.2.irudian agertzen da



22.2.Irudia


Ekuazioan egon daitezkeen egoera guztiak adierazi ahal izateko bi aldagai daudenez gero,lau gelatxo behar dira

Funtzioa 0 izateko : a = 0 eta b = 0 (1.gelatxoa)
Funtzioa 1 izateko : a = 0 eta b = 1 (2.gelatxoa)
a = 1 eta b = 1 (3.gelatxoa)
a = 1 eta b = 0 (4.gelatxoa)

Karnaugh-en diagramaren eta egi taularen arteko antza,nabarmena da.Sortutako sinplffikazioa argi dago.

b) S = a.b ekuazioaren egi taula eta Karnaugh-en diagrama egin


a	b	S
0	0	0
0	1	0
1	1	1
1	0	0



22.3.Irudia

c) S = $\bar{a}$.b + c ekuazioaren egi taula eta Karnaugh-en diagrama egin.

a	b	c	S
0	0	0	0
1	0	0	0
1	1	0	0
0	1	0	1
0	1	1	1
1	1	1	1
1	0	1	1
0	0	1	1



22.4.Irudia


Aldagaiak non jartzen direnaren arabera,Karnaugh-en diagrama hiru eratara egin daiteke.

Hiru aldagai daudenez gero,beren artean zortzi konbinazio daude.

Lehen ikusitakoa baino bi aldiz handiagoa den Karnaugh-en diagrama erabili behar da

d) $S = ab\bar{c} + \bar{a}b\bar{d} + dc\bar{b} + \bar{a}\bar{b}cd$ ekuazioaren egi taula eta Karnaugh-en diagrama adierazi

a	b	c	d	S
0	0	0	0	0
1	0	0	0	0
1	1	0	0	1
0	1	0	0	1
0	1	1	0	1
1	1	1	0	0
1	0	1	0	0
0	0	1	0	1
0	0	1	1	0
1	0	1	1	0
1	1	1	1	0
0	1	1	1	0
0	1	0	1	0
1	1	0	1	1
1	0	0	1	1
0	0	0	1	1



22.5.Irudia

Lau aldagai daudenez gero, $2^4 = 16$ konbinazio eman daitezke.Beraz,Karnaugh-en diagramak 4 x 4 = 16 gelatxo izango ditu.

Erabili den aldagaien jarrera dela eta,egoera batetik hurrengora joateko aldagai bakar baten aldaketa egin behar da,eta Karnaugh-en diagraman gelatxo batetik ondoko batera joatea da.

Aurrera ikusiko dugunez,honek eragiketa-metodoetan erraztasun ikaragarria dakar.Kodeketa-era hau,sistema bitar erreflexuari dagokio.

23.ARIKETA

KARNAUGH-EN TAULEN BIDEZKO FUNTZIOEN SINPLIFIKAZIOA


Karnaugh-en taularen bidezko funtzio baten sinplifikazioa egin ahal izateko,ondoko arauak kontuan hartu behar dira:

1.- Egiten den egoera-elkarketa bakoitzean,ahal daitekeen egoera-kopururik handiena hartu behar da.


2.- Funtzioak lau aldagai badauzka:

- Elkarren ondoko zortzi egoerako elkarketa bat aldagai bakar batez eman daiteke.
- Elkarren ondoko lau egoerako elkarketa bat bi aldagairen bidez eman daiteke.
- Elkarren ondoko bi egoerako elkarketa bat hiru aldagairen bidez eman daiteke.
- Egoera isolatu bat lau aldagairen bidez adierazten da.

ADIBIDEAK: (Ekuazio bakoitza, egindako egoera-elkarketari dagokio).



23.1.Irudia



23.2.Irudia


Funtzioak hiru aldagai badauzka:

- Elkarren ondoko lau egoerako elkarketa ba, aldagai bakar batez eman daiteke.

- Elkarren ondoko bi egoerako elkarketa bat, bi aldagairen bidez eman daiteke.

- Egoera isolatu bat hiru aldagairen bidez adierazten da.


ADIBIDEA:



23.3.Irudia

Egoera bi edo gehiago elkarren ondoko bezala kontsideratu ahal izateko, Karnaughen diagrametan nolabaiteko simetria eduki behar dute.

23.4.irudiko diagramaren egoerek, inongo ardatzarekiko simetria rik ez dutenez gero, ez dira elkarkorrak




23.4.Irudia

ARIKETAK:

1.- 21.ariketaren 1 adibidearen funtzioaren sinplifikazioa egin

$F = \overline{AC} + AB + A\overline{B}C + A\overline{C}$ Karnaughen diagramaren bidez.



$S = A + \overline{C}$


23.5.Irudia

Erregela orokor bezala, eta sinplifikazioa ahal den handie na izan dadin, elkarketak egiterakoan har daitezkeen egoerak ahal diren kasu guztietan hartu behar dira.

Beraz egoera bat edo beste elkarketa batetan baino gehiago tan egon daiteke.

Lortutako sinplifikazioa nabarmena da.


2.- Ondoko Karnaughen diagramaren bidez emandako funtzioaren sinplifikazioa egin.



$S = AC + AB + \overline{C}\,\overline{D}\,\overline{A}$

23.6.Irudia

3.- Ondoko ekuazioaren sinplifikazioa egin.




$S = \overline{C} + A\,\overline{B}$

23.7.Irudia

24.ARIKETA


GARRANTZI HANDIKO SINPLIFIKAZIOAK.

1.- Sinplifikatu $F = A + AB$




$F = A$

2.- Sinplifikatu $F = \overline{B} + \overline{B}A$




$F = \overline{B}$

3.- Sinplifikatu $F = A + \bar{A}B$




$F = A + B$

4.- Sinplifikatu $F = \bar{A} + AB$



$F = \bar{A} + B$

5.- Sinplifikatu $F = \bar{A}B + \bar{B}$




$F = \bar{A} + \bar{B}$

25.ARIKETA

LOGIGRAMEN SINPLIFIKAZIOAK

Ondoko logigramak emanik, aurkitu beren emaitza sinplifikatuak (ikus 24.ariketa: garrantzi handiko sinplifikazioak)




$X = A\,\bar{B}$

$Y = A\bar{B} + B = B + A$

$Z = A\,C$

$S = B + A + AC = B + A$

25.1.Irudia




$X = A\ C$

$Y = \bar{A}\ B$

$Z = A\ C + \bar{A}\ B$

$S = AC+\bar{A}B+\bar{B} = AC+\bar{A}+\bar{B} = \bar{A}+C+\bar{B}$

25.2.Irudia



$X = A\ B$

$\bar{X} = \overline{A\ B} = \bar{A} + \bar{B}$

$Y = B\ \bar{X} = B(\bar{A}+\bar{B}) = B\ \bar{A}$

$\bar{Y} = \overline{B\ \bar{A}} = \bar{B} + A$


$S = \bar{Y}\ \bar{X} = (\bar{B}+A)(\bar{A}+\bar{B}) =$

$= \bar{B}\bar{A} + \bar{B}\bar{B} + A\bar{A} + A\bar{B} =$

$= \bar{B}\bar{A} + \bar{B} + A\bar{B} =$

$= \bar{B}\bar{A} + \bar{B} = \bar{B}$

25.3.Irudia



25.4.Irudia

$X = A\ B$

$Y = AB + B = B$

$R = A\ \bar{B}$

$Z = Y + R = B + \bar{B}A = B + A$

$V = Z \cdot B = (B + A)B = B + AB = B$

$W = \bar{B}A$

$S = \bar{V} + W = \bar{B}A + \bar{B} = \bar{B}$

26.APIKETA

ALDERANTZIZKO FUNTZIOA.

Karnaughen taularen gainean, funtzio baten funtzio alderantzizkoaren kalkulaketa.

Aurkitu ALA (exclusivor) funtzioaren alderantzizko ekuazioa

$$S = a\bar{b} + \bar{a}b$$

Egi-taula:

a	b	S	$\bar{S}$
0	0	0	1
0	1	1	0
1	1	0	1
1	0	1	0

26.1.Irudia

Karnaughen taula:



26.2.Irudia

Egindako kalkulua egiaztatzeko funtzioa era algebraikoz alderanz dezakegu:

$$S = \overline{a\bar{b} + \bar{a}b} = \overline{a\bar{b}} \cdot \overline{\bar{a}b} = (\bar{a}+b).(a+\bar{b}) = a\bar{a} + \bar{a}\bar{b} + ab + b\bar{b} =$$

$$= \bar{a}\bar{b} + ab$$

Funtzio baten alderantzizkoa aurkitzeko bi bide daude:

- 26.2.irudian egin den bezala egoera guztietako zeinua inbertitu eta "1"-en elkarketa egin.

- Zuzenean "0"-en elkarketa egin.


Gerako ariketak egin hala ikusiko dugunez, lau bidetako banatzaileen emankizunak direla eta, zilindro batez funtzio bat ala bere alderantzizkoa egiteko dagoen zailtasuna berdina da.

"0"-ren elkarketa "1"-en elkarketa baino sinpleago denean, zuzen zuzenean alderantzizko funtzioa kalkulatuko da.

AXOLARIK GABEKO BALDINTZAK

Problema batzutan egitura mekanikoa dela eta bi aldagai batera eragitea ezinezkoa da.

Adibidea:



26.3.Irudia

26.3.irudiko zilindroa etengabe atzera eta atzera ibil dadila nahi da.

a eta b biak batera eragitea ezinezkoa da.

Mota honetako problemetan aldagaien konbinazio batzuk ez dira funtzioan sekula agertzen ezinezkoak direlako. Errealitatean ager daitezen, aberiaren batek gertatu behar du.

LOGIKA KONBINATORIOA

27. ARIKETA

I_1 ETA P_1 ALDAGAIEN BIDEZKO "ALA" FUNTZIOA.

Bi balbulak efektu bakuneko zilindro bat ondoan ematen den eran eragiten dute:

1.- I_1 eragiterakoan zilindroa aurrera doa.

2.- P_1 eragiterakoan zilindroa atzera doa.

3.- I_1 pausagune-egoerara itzultzerakoan aurrera doa.


4.- P_1 pausagune-egoerara itzultzerakoan atzera doa.

Ohar gaitezen hartutako eritzietaz:

1 egoera - zilindroa aurreratuta edo aurrerantz joaten

0 egoera - zilindroa atzeratuta edo atzerantz joaten.

Karnaugh-en diagrama:



27.1.Irudia

Adierazpena: - Izartxo batez markatutako gelatxoa, zikloaren hasierari dagokio. Egoera honetan $\overline{I}_1\overline{P}_1$ zilindroa sartuta dago (0 egoera).

- I_1 eragiterakoan zilindroa aurrerantz doa (geziaren norantzari jarraitu).

- P_1 eragiterakoan (jarraitu geziari hurrengo gelatxoraino) zilindroa atzerantz doa.


- I_1 deskonektatzerakoan zikloan egoera bat aurreratzen da. Zilindroa aurrerantz doa.

- P_1 deskonektatzerakoan, zilindroa gelditu egiten da, eta zikloa bukatzen.

Ekuazio logikoa zera da:

$A = I_1\overline{P_1} + P_1\overline{I}_1$ beraz, ALA (exclusivor) funtzioari dagokiona (13.ariketan ikusi dugun bezala)


ESKEMA:



27.2.Irudia

28.ARIKETA

MARGOTZEKO MEKANISMO AUTOMATIKOA.



28.1.Irudia

Funtzionamendu-zikloa:

1.- Zilindroa atzeratuta dago. a_o konektatuta dago.

2.- P_1 funtzionamendu orokorreko balbulari eragiten zaio. C zilindroa aurrerantz doa eta margo-pistolari presioa ematen zaio.

3.- a_o deskonektatzen da. Baldintzak 2.puntukoak bezalakoak dira.


4.- a_1 konektatzen da. Margo-pistolara doan airea itxi eta margoketa gelditu egiten da.

5.- P_1-i deseragiten zaio. Zilindroa atzerantz doa eta pistolari, airea ematen zaio berriz.

6.- a_1 deskonektatzen da. 5.puntuko baldintzek jarraitzen dute.


7.- a_o deskonektatzen da. Pistolara doan airea ixten da.

Ibilbide-diagrama:



28.2.Irudia


A zilindroaren Karnaughen diagrama:



$A = P_1$

28.3.Irudia


Pistolaren Karnaughen diagrama:



$p = \bar{a}_o.\bar{P}_1 + \bar{a}_1.P_1$

28.4.Irudia

ESKEMA:



28.5.Irudia


1.- Esandako funtzionamendu-zikloa eginarazi eta bere egokitasuna egiaztatu.

Pistolaren ekintza L_1 pilota pneumatiko baten bidez adieraz daiteke.

29.ARIKETA

JASOGAILUEN AUTOMATIZAZIOA.

Jasogailu baten gainean zama bat ipintzean igo egiten da eta kentzean jaitsi. Horretarako 29.1.irudian agertzen dena eraikitzen da.



29.1. Irudia

Funtzionamendu-zikloa:

1.- Zilindroa behe aldean dago. Ez dago zama jarririk. Beraz, C_0 eragina dago.

2.- Zama bat ipintzerakoan P_1 ixten da. Zilindroa gorantz doa.

3.- C_0 deskonektatzen da. C-k gorantz jarraitzen du.


4.- C_1-i eragiten zaio. C goi aldean geratzen da.

5.- Zama kentzen da. P_1 deskonektatzen da. Zilindroa beherantz doa.


6.- C_1 deskonektatzen da. C-k beherantz jarraitzen du.

7.- C_0 deskonektatzen da. C behe aldean geratzen da.

Ibilbide-diagrama:




Karnaughen diagrama:



29.3.Irudia

ESKEMA:




29.4.Irudia

30.ARIKETA

PRENTSARAKO XAFLA-ELIKAGAILUA.

Ikus 30.1 irudia hurrengo orrialdean.



30.1. Irudia

Funtzionamendu-zikloa ondoko hau da:

1.- Hasierako posizioan A eta B zilindroak atzean daude. a_o eta b_o konektatuta daude. A aurrerantz doa.

2.- a_o deskonektatzen da.

A-k aurrerantz jarraitzen du eta xafla heltzen du.

3.- a_1 konektatzen da.

B zilindroa aurrerantz doa eta xafla aurrera darama.

4.- b_o deskonektatu egiten da.

B-k aurrerantz jarraitzen du.

5.- b_1 deskonektatu egiten da.

A atzerantz doa eta xafla uzten du.

6.- a_1 deskonektatu egiten da.

A-k atzerantz jarraitzen du.

7.- a_0 konketatu egiten da.


B atzerantz doa.

8.- b_1 deskonektatu egiten da.

B-k atzerantz jarraitzen du.

1.- b_0 konektatu egiten da.


Ibilbide-diagrama:



30.2. Irudia


Egoera bakoitzak funtzionamendu-zikloa adierazterakoan eman zaion zenbakia darama.

A zilindroaren diagrama:



30.3.Irudia

B zilindroaren diagrama:



30.4.Irudia

Zilindroen eragipenerako aginte bakuneko banatzaileak erabiltzen direnean, beren atzerapena malguki baten bidez egiten da.

Posizio egonkor bat badago (0 egoera), eta beste ezegonkor bat, azken hau 1 posizioan aurkitzeko aginteak ekin behar du.

Zilindroak eragiteko beste bide bat bi aginteko banatzaileren bidezkoa da.

Bi egoera egonkor daude:


- A_1 sarrerari presio-bulkada bat eragiterakoan, banatzailea a zilindroa aurreratzen duen posiziora pasatzen da.

  Bulkada desagertzerakoan, banatzaileak bere posizioan irauten du eta zilindroa aterata geratzen da.

- A_0 sarrerari presio-bulkada bat eragiterakoan, banatzailea A zilindroa atzeratzen duen posiziora pasatzen da.

  Bulkada desagertzean banatzaileak bere posizioan irauten du eta zilindroa sartuta geratzen da.

Aginte bikoitzeko A zilindroaren diagrama:



30.5.Irudia

Ibilbide-diagraman bi egoera berezi daude:

1 Egoera - A funtzioa 0tik 1era pasatzen da.

5 Egoera - A funtzioa 1etik 0ra pasatzen da.

Bi egoera hauek "nagusiak" direla esan ohi da eta laukitxo txiki batez adierazten dira.

A zilindroaren ekuazioa aurkitzeko 1 eta 5 egoerak ondoko era horretan kodetzea aski izango litzateke:

$$A_0 = a_1.\bar{a}_0.b_1.\bar{b}_0$$

$$A_1 = a_0.\bar{a}_1.\bar{b}_0.\bar{b}_1$$

Nahiz eta banatzailea bi posizio egonkorrekoa izan, komeni zaizkigun zikloaren egoeratan bere aginte-sarreretan presioa manten dezakegu. Honela ekuazioak errazagoak izan daitezke.


A_1 funtzioa kalkulatzeko, egoeren bilketa egin behar da. Bilketa horretan zera hartu behar da batera:

- [1] egoera nagusia. Kasu honetan zikloaren 1 egoera.
- Sinplifikaziorik handiena egiteko egokiak diren 1 eta "axolarik gabeko egoera" guztiak.

A_0 funtzio kalkulatzeko bilketa egin behar da. Bertan, zera hartu behar da batera:


- [0] egoera nagusia. Kasu honetan zikloaren 5 egoera.
- Sinplifikaziorik handiena egiteko egokiak diren 0 eta "axolarik gabeko egoera" guztiak.

<u>Aginte bikoitzeko A zilindroaren diagrama</u>:



30.6. <u>Irudia</u>


Aginte bikoitzeko B zilindroaren diagrama:



30.7.Irudia

Ekuazio hauekin lortutako sinplifikazioa aginte bakuneko kasukoak baino askoz ere handiagoa da.

ESKEMA:



30.8.Irudia

1.- Balbula nagusia deskonektatuta eduki eta 30.8.irudian agertzen den muntaia eraiki eta zilindroak nahiz banatzaileak zikloaren 1 posizioan ipini.

2.- Balbula nagusia konektatu eta zikloaren funtzionamendua egiaztatu.

BURUTZAPEN-ERAK: ESKUZ (zikloka) ALA AUTOMATIKOKI (segidako zikloak).

Zirkuitu industrialek sarri askotan bi eratara lan egin dezakete:

AUTOMATIKOKI: Ziklo baten amaierak hurrengo zikloari hasiera ematen dio. Zikloak, beraz, segidan eta eten gabe gertatzen dira.

ESKUZ : Balbulari eragiterakoan ziklo bakar bat betetzen da.

Karnaughen zikloan posibilitate hauen azterketak zailtasun handi bat dakarkio problemari. Aldiz, ziklo sinplifikatuaren ekuazioak ezagutu ondoren egokitzeko behar diren zuzenketak egitea erraza da.

I_1-en bidez nahi dugun era aukeratzen dugu.

P_1-en bidez, eskuz lan egin nahi denean, zikloari hasiera ematen diogu.


A zilindroa 1 posizioan jartzeak hasiera ematen dio zikloari. Dagokion ekuazio $A_1=b_0$ da.

Ekuazio honetan baldintza berriak sartuz zikloa geldieraz deza kegu:

$$A_1 = b_0 \ (I_1 + P_1)$$

Zikloak berrizteko I_1-ek (AUTOMATIKOKI) ala P_1-ek (ESKUZ) eraginda egon beharko du.

A_1 koneksioaren aldakuntza:




30.9.Irudia

Beste edozein posizio batetan zikloa geldierazi nahi badugu, dagokion ekuazioa aldatu egin behar dugu eta dagozkion baldintza berriak sartu.

31.ARIKETA

ONTZIRATZE AUTOMATIKORAKO MEKANISMOA.

Ikus 31.1.irudia hurrengo orrialdean.



31.1. Irudia

Funtzionamendu-zikloa:

1.- Hasierako posizioan A eta B zilindroak aterata daude. V basoa goiko partean dago. Beraz, a_1 eta P_0 konektatuta daude.

2.- P_1 abia-balbulari eragiten zaio. A zilindroa atzerantz doa.

3.- a_1 deskonektatu egiten da. A-k atzerantz jarraitzen du, materiala tolba edo kalapatxatik V ontzira erortzen da.

4.- P_1 deskonektatu egiten da.

5.- Zamak N kontrapisua gainditzen duenean P_0 deskonektatu egiten da.


6.- I_1 konektatu egiten da. A zilindroa aurrerantz doa T kalapatxa itxiz.

7.- a_1-i eragiten zaio. B zilindroa atzerantz doa eta materiala potora erortzen da.

8.- I_1 deskonektatu egiten da.


1.- P_0 konektatu egiten da. B zilindroa aurrerantz doa. Dena hasierako posizioan gelditzen da.

Ibilbide-diagrama:




31.2.Irudia

